



merca**B**ilbao

U R T E K O T X O S T E N A



2015

merca **B**ilbao



1. AURKEZPENAK	05
Presidentearen gutuna	
Zuzendari nagusiaren gutuna	
Akziodunak	
Gobernu-organoak	
2. MERKATUAK - MERKATURATZEA	13
Fruten eta barazkien merkatua	
Arrainen merkatua	
Askotarikoen merkatua	
3. ZERBITZUAK	25
Instalazioak	
Ingurumena	
Segurtasuna	
4. GIZARTEA	33
Aliantzak	
Lankidetzak	
5. BEZEROAK	37
Merkatuko handizkarien zerrenda	
Bezeroen asebetetzea	
6. PERTSONAK	43
Absentismo-tasa	
Organigrama	
Prestakuntza	
7. FINANTZAK	47



→ **PRESIDENTEAREN GUTUNA**

Atsegin handia da niretzat 2015eko informazioa xehetasunez ematen duen Mercabilbaoren urteko txosten hau aurrenekoz aurkeztea. Eta atsegin hori are handiagoa da, esku artean konpainia saneatua, errentagarria eta etorkizuna duena daukagulako oraingoan ere, eta hori ez da gutxi jasandako zailtasun ekonomikoen ondoko ziurgabetasun-garai hauetan.

Aurreko ekitaldiko datuek, merkaturatze-erregistroei dagokienez, eutsi egiten diote, eta horrek esan nahi du, kontsumo-ohiturak aldatu arren, kaleak lanean diharduela eta, hortaz, produktu galkorren hiri-merkataritzaren eredua, udal-merkatuei lotua, badela oraindik sustatu beharreko erreferentzia bat, gure herri eta hirietan jarduera egituratzeko ardatz gisa. Izan ere, janaritegi handi honetan konpromisoa argia da, kantitatea, aukera eta prezio-gardentasuna ziurtatzea, alegia, osasungarritasunaren eta kalitatearen aldetik estandar handienak bermatzen dituzten osasun-kontrol zorrotzen azpian, betiere.

2015. urtean, Mercabilbaon 2014-2017ko Plan Estrategikoari begira lan egiten jarraitu dugu. Ehuneko ehunean okupatua dagoen merkatu

baten ohiko dinamikan jarraitzeaz gain eta gure mugak gainditzen dituzten proiektu berriak zabaltzeaz gain, arautegiaren testua osatu dugu, hurrengo hamarkadetan merkatuko jarduerari arau-estaldura eman diezaien. Horrekin batera, azpiegiturei buruzko gida-plan bat ere taxutzen hasi gara, azpiegiturak egokitzeko eta modernizatzeko, garai berrian operazioari eraginkortasunez ekiteko.

Egunez egun agertzen zaizkigun erronkei erantzuten jarraitzeko asmoa dugu, halako erronkak hornidura-merkatu nagusiak garatzeko arloek zein gizarteak, oro har, planteaturik ere. Horretarako, geure ardatz eta konpromiso estrategikoetan bermatzen gara, eta horiek guztiak, hain zuzen, bat datoz kudeaketa eraginkor, iraunkor eta garden baten printzipioekin, horiek izanik, ezbairik gabe, gobernu onerako funtsezko osagaiak.

Mercabilbaon, hartara, enpresa-harreman etiko eta erantzukizunezkoak ezartzen jarraitzen dugu, konfiantzan oinarrituak, elikagai-plataforma hau sendotzen jarraitzeko xedez, gizartearen mesedetan, oro har. Txosten hau argitaratzea aukera bat da gure emaitzak ezagutarazteko, bai eta

“ Ehuneko ehunean okupatua dagoen merkatu baten ohiko dinamikan jarraitzeaz gain eta proiektu berriak zabaltzeaz gain, arautegiaren testua osatu dugu, hurrengo hamarkadetan merkatuko jarduerari arau-estaldura eman diezaien

gure bezero, langile, hornitzaile, bazkide eta laguntzaileei elkarrekin egindako 44 urteko ibilbide hau eskertzeko ere.

Juan Mari Aburto Rique

Administrazio Kontseiluko presidentea
Bilboko alkatea

merca **B**ilbao

→ ZUZENDARI NAGUSIAREN GUTUNA

Mercabilbaok aho bete gozo elikatzen du

Urteko txosten hau argitaratuta, atzera ere emaitza osasuntsuekin saritu gaituen ekitaldi bat ixten dugu. Emaitzok aurreko urtekoen antzekoak izan dira, eta Mercabilbao osatzen dugun guztiok urteetan zehar eginiko lan sendo eta jarraituari esker lortu dira. Hala, bada, ekitaldia emaitza positiboarekin bukatu da hamargarren urtez jarraian.

Era berean, aurreko urtekoen antzekoak izan dira merkaturatze-zifrak merkatuko sektore guztietan. Arrainen sektoreak ia 28 milioi kilo mugitu ditu; fruten eta barazkien sektoreak, 215 milioi kilo inguru; eta askotariko elikagaien sektoreak (arrautzak, okelak, eta beste batzuk), bestalde, 3 milioi eta erdi kiloak gainditu ditu. Eta hori guztia, ozta-ozta 13 hektarea dituen azalera batean kudeatu da -berriz ere bete-beteko okupazioarekin-, eta ia mila pertsona enplegatzen dituzten 108 enpresak gauzatu dute. Laburbilduz, lurraldean aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen duen egiazko eragile ekonomikoa.

2015ean, Mercabilbaoren eredu arrakastatsua sendotzen jarraitu dugu; alabaina, argi dugu geure burua etengabe berrasmatu eta

eraldatu behar dugula, beti bilakaeran ari den merkatu baten eskakizunei erantzuteko gai izango bagara. Aldaketak, gizartearengandik bertatik abiatuak, geure bezeroenganaino iristen dira, eta gure hornitzaile eta laguntzaileei eragiten diete, zeini bere neurrian; ondorioz, inoiz ere, ezta igandeetan ere, atsedean hartzen ez duen elikagaien hiri honetan ere eragina izaten dute. Horregatik, gure helburua da ekinean jarraitzea, gure bezeroekin erabateko kohesioa erdiesteko, etorkizunean ere arrakasta izaten lagungarri izan dezagun.

Illo horretan, 2015. urtean hornidura-merkatu nagusiaren zerbitzua emateko eta funtzionamendurako arautegi berria taxutu genuen, eta azaroaren bukaera aldera hasierako onarpena eman zitzaion osoko bilkuran; horrela, ekitaldia ixtean, behin betiko onarpena emateko izapidea baino ez zen falta, jendaurreko aldian eginiko alegazioak aztertu eta gero. Testu berriaren helburua da Mercabilbaoko jarduerari arau-estaldura ematea hurrengo hamarkadetan, modu bizi eta malgu batean beti, indarrean den arau-esparrua zainduz eta lehia askearen oinarriak errespetatuz.

Dena dela, etorkizunean operazioak erarik onenean aurrera eramatea bermatzen da, instalazio seguruak eta erabiltzeko baldintza ezin hobeetan edukiz. Horretarako, instalazio horiek egokitzeko eta modernizatzeko eskakizunak eta kostuak ezagutze aldera, 2015. urtearen bukaeran gida-plan bat taxutzea kontratatu zen, Mercabilbaoko azpiegiturak modernizatzeko. Ingeniaritzako azterlan horren helburua da (2016. urtearen lehen erdian aterako dira argitara haren ondorioak) instalazioen egoera eta egokitzeko beharrak ezagutzea, bai eta hobetzeko proposamenak ere, halakorik baldin badago; era berean, eraberritzearen kostua ere ezagutzera emango du, sektoreen artean behar bezala banatzeko, hura gauzatzen denean.

Halaber, kontsumitzeko eretan gertatzen ari diren aldaketak nahiz iragandako ekonomia-krisiak utzitako ondorioak direla medio, 2015. urtearen hondar-partean merkatuaren eta haren etorkizuneko bilakaeraren diagnostikoa egiteko lanak hasi ziren (2016an bukatzekoak). Lan horien azken emaitza, hain zuzen ere, eta arestian aipatutako gida-plana Mercabilbaoren Plan Estrategikoaren

berrikuspena egiteko erabiliko dira, hurrengo urteei begira. Esan behar da aholkularitzako lan hori “merca” guztien sarean egiten ari dela, sektorearen baterako azterketa egitearren, eta modu indibidualean elikagai-unitate bakoitzean aldi berean. Mercasak hartzen du bere gain haren kostu osoa, eta, lerro hauen bidez, hori eskertu egiten dugu.

2015eko eguneroko jardunari dagokionez, gure estrategiaren barruan nazioartekotzeari eman zaion bultzada nabarmendu behar da. Arlo horretan, pozik agertu behar dugu Ingalaterrara eginiko esportazio-jarduerengatik, Bilboko Portuaren bidez, kargak Mercabilbaon taldekatu eta gero. Ekimen hori Berlingo Fruit Logistica azokan ernatu zen, Bilboko Portu Agintaritzaren gerizpean parte hartu baikenuen han, Basque

Country Logistics markarekin. Kanpoko logistika bultzatzeko ildo berean sartzen dira, halaber, Bordeleko merkatu nagusiarekin antolaturiko bisitak eta garatutako misio komertziala; izan ere, haiekin etengabeko harremana izaten dugu bi hirien arteko jarduera bateratuak aurrera eramateko, Euskadi-Akitania euroeskualdearen esparruaren barruan. Ekuadorretik, Txiletik eta Faroe uharteetatik jasotako beste bisita batzuek osatzen dute munduari begira egin dugun lana.

Eta arestiko hori gertatzen zen bitartean, merkatuko ohiko operazioak betiko erritmo bizian jarraitzen zuen, instalazioak obretako makina eta langileekin partekatzeke irudiarekin batera, ohitura bihurtzen ari zaigunez, instalazioak mantendu eta onik

zaintzeko, bai eta, ahal den neurrian, instalazioon funtzionaltasuna hobetzeko ere. Egin diren dozenaka esku-hartzeen artean, nabarmendu behar dira hozkailu nagusiaren kaiak konpondu eta egokitu izana, arrainen eta produktu izoztuen pabiloietako metalezko egitura saneatu eta pintatu izana, merkatuko behe-tentsioko instalazioa pixkanaka egokitu izana, eta pabiloietako argi-zuloak hobetu izana. Prebentziozko mantentze-lanak egiteko eta ekipamenduak kalibratzeko ohiko eginkizunen multzoak osatzen ditu, azkenik, merkatu atseginago eta seguruagoa izateko xedea daukaten jarduerak. Azken ezaugarri hori, hain zuzen, Udaleko Albaitaritza Zerbitzuak goizalde guztietan egiten duen lan arduratsuari eskertu behar zaio; lan horren bidez, hautemandako aukera-eremuak jakinarazten dizkigu.

“Berriz ere, 2015ean Mercabilbao egiazko eragile ekonomikotzat agertu da, lurraldean aberastasuna eta enplegua sortzen laguntzen duen eragiletzat

Era berean, 2015ean zehar Mercabilbaoren marka sustatzeko eginiko ahaleginen balioa nabarmendu behar da, ez bakarrik merkataritzazko erreferentzia izateko Berlingo Fruit Logistica edo Fruit Attraction azoketan, besteak beste, baizik eta marka horrek ordezkatzeko duen gizarte-konpromisoaren balioa agerian jartzeko. Ildo horretan, nabarmendu behar da gaur egun ehunka ikaslerekin kontsumo arduratsu eta osasungarriaren alde egiten dugun sentsibilizazio-lana, bai eta gastronomiaren eta kirolaren arloko hainbat ekitalditan aurrera eramaten dugun lankidetzaren ere. Horri guztiari gehitu behar zaio Bizkaiko Elikagaien Bankua duela bi hamarkadetatik hona gure instalazioetan betetzen ari den eginkizun sozial gogobetegarria, kolektibo behartuenei merkaturatu sortutako produktu-soberakinak helarazteko. Mercabilbaoren irudiak Blas

Fernán데zen “Urbanetniko” (2015) diskoaren azalean eta barnealdean agertu izana beste mugarri bat da Mercabilbao herritarren aurrean gizarteratzeko bidean.


Gobernu onaren atalari dagozkion jarduerak ere nabarmendu beharrekoak dira 2015ean; horrela, gure interes-taldearen aurrean garden bihurtzen gaituzten datuak argitaratu ziren, arrisku penalen eskuliburua onartu zen, indarkeriaren aurkako kode bat ezarri zen, eta Bilboko Udalaren jokabide-kode etikoarekin bat egin zen. Horiek guztiak ez ziren inola ere jarduera bakanak izan; aitzitik, gure kudeaketa-sistema aurreratuaren esparrukoak dira. Sistema horrek ISO 9001 kalitate-ziurtagiriaren nahiz ISO 14001 ingurumen-ziurtagiriaren eskakizunak gainditzen ditu, eta ziurtagiriok ere, hain zuzen, joan den urtean

berritu ziren. Horretarako lagungarriak izan ziren, besteak beste, barrutiko argiztapena hobetu izana eta suak itzaltzeko elementuak egunean jarri izana.

Lerro hauetatik, eskerrak ematen dizkiegu gure giza taldeari, merkaturako operadoreei, bezeroei, akziodunei eta, oro har, kontsumitzaileei, errealitate hau posible egiteagatik, eta uste sendoa dugu, ezin bestela izan, datorren urtean Mercabilbaok gu arrakastaz elikatzen jarraituko duela, aurrerantzean ere Wstatuko iparraldeko eta Frantziako hegoaldeko erreferentzia izateko.

Aitor Argote Ibáñez
Mercabilbaoko zuzendari nagusia



→ **AKZIODUNAK**→ **GOBERNU ORGANOAK**

Presidentea: Juan Mari Aburto Rique jn. t. g. Bilboko Udala

1. Presidenteordea: José Antonio Crespo Albelda jn. MERCASA

2. Presidenteordea: Mikel Álvarez Yeregui jn. Bilboko Udala

Kontseilukideak:	Asier Abaunza Robles jn.	Bilboko Udala
	Ricardo Barkala Zumelzu jn.	Bilboko Udala
	Yolanda Díez Sáiz and.	Bilboko Udala
	Xabier Ochandiano Martínez jn.	Bilboko Udala
	Silvia Llerena Muñoz and.	MERCASA
	Eduardo Enciso Ochoa jn.	MERCASA
	María Vázquez González and.	MERCASA

Kontseilukide ez direnak:

Idazkaria: Gonzalo Ruiz Aizpuru jn.

Letradu aholkularia: Gregorio Esteban Guereca jn.

2015/12/31ean indarreko administrazio-kontseilua

2015 URTEKO TXOSTENA merca **B**ilbao



Merkatuak Merkaturatzea

→ FRUTEN ETA BARAZKIEN MERKATUA

2015ean, 214.677 tn fruta eta barazki merkaturatu dira, hau da, jaitsiera txikia izan da, $-\%0,18$ koa, 2014an lortutako datu historikoen aldean.

Gutxitze txiki horren arrazoia bananen merkaturatzean gertaturiko beherakada handia izan da; izan ere, 2015ean $-\%4,06$ egin du behera 2014koaren aldean Fruten eta barazkien alorreko gainerako taldeek merkaturatze-datu hobeak izan dituzte, $\%0,15$ etik $\%1,14$ ra bitarteko igoerekin.

Prezioari dagokionez, fruten eta barazkien merkaturako batez besteko prezioa $0,99 \text{ €/kg}$ izan da, eta, horren arabera, $\%8,79$ gehitu da. Nabarmendu behar da bertako ekoizleek



2015ean 214.677 tn fruta eta barazki merkaturatu dira, hau da, jaitsiera txikia izan da 2014ko datuen aldean, bananen banaketan beherakada handia izan delako; gainerakoetan, dena dela, datuak hobetu egin dira

merkaturaturiko barazkietan gertatu den prezio-igoera, %11,63 igo baita, bai eta patataren igoera ere, %6,67ko gehikuntzarekin.

→ BARAZKIAK

Handizkako enpresek merkaturatutako fruten eta barazkien aldetik, aurreko ekitaldian lorturiko zifrak sendotu dira, %0,39ko igoera txikiarekin.

Barazki-familia kontsumituenak hauek dira, hurrenez hurren: patata, tomatea, letxuga, piperra eta tipula; letxugen (-%1,68) eta piperren (-%2,48) kontsumoan izaniko jaitsierak nabarmendu behar dira. Esan behar da barazki batzuek, arbiek edo jukak kasu, izan duten gorakada, %77,91 eta %68,90 gehitu baitira, hurrenez hurren.



PRESENTZIA HANDIENeko barazkiak:

1. Patata	+1,14%	15.495 tn
2. Tomatea	+1,60%	14.864 tn
3. Letxugak	-1,68%	4.893 tn
4. Piperrak	-2,48%	4.785 tn
5. Tipulak	+1,59%	4.784 tn

IGOERA HANDIENeko barazkiak:

1. Juka	+68,90%	16 tn
2. Arbiak	+77,91%	5 tn
3. Batata	+37,04%	46 tn
4. Borraja	+18,03%	30 tn
5. Piperminak	+14,70%	67 tn


JAITSIERA HANDIENeko barazkiak:

1. Indabak	-13,63%	3.347 tn
2. Ziazerbak	-12,51%	85 tn
3. Karduak	-10,99%	17 tn
4. Eskarola	-9,21%	168 tn
5. Txinako aza	-8,16%	66 tn



→ FRUTAK

Frutei dagokienez, zitrikoek, eta bereziki laranjak, %2,28ko jaitsiera metatu arren, 36.321 tn-rekin, merkatuan duen hegemoniari eutsi dio, presentzia handieneko fruta izanik merkatuan. Sagarrak +%1,59 hobetu ditu merkaturatze-datuak, eta banana hirugarren postura jaitsarazi du, bananen merkaturatze-bolumenak -%4,06 galdu baitu. Jaitsiera nabarmenak izan dituzte, halaber, kiwiek (-%4,75), arbeletxeok (-%2,84) edo gereziek (-%2,46).



PRESENTZIA HANDIENEO frutak:

1. Laranja	36.321 tn	-2,28%
2. Sagarra	20.745 tn	+1,59%
3. Banana	20.001 tn	-4,06%
4. Melokotoia	8.852 tn	+0,62%
5. Mandarina	8.113 tn	+8,00%
6. Madaria	7.537 tn	-1,44%

IGOERA HANDIENEO frutak:

1. Mugurdia	+229,45%	(1,047 tn)
2. Orejoiak	+92,47%	(3,6 tn)
3. Papaya	+87,65%	(209 tn)
4. Datilak	+70,60%	(4,9 tn)
5. Irasagarra	+23,28%	(18,5 tn)

JAITSIERA HANDIENEO frutak:

1. Kiwia	-4,75%	(4.864 tn)
2. Banana	-4,06%	(20.001 tn)
3. Arbeletxekoa	-2,84%	(1.469 tn)
4. Gerezia	-2,46%	(2.680 tn)
5. Laranja	-2,28%	(36.321 tn)

→ MERKATUKO PRODUKTUEN JATORRIA

Mercabilbaon merkaturatutako produktu guztietatik, %87,49 Estatutik etorri dira, eta %12,51 inportatutako produktuak izan dira.

Aurreko urteetako ildo beretik, jatorria Estatuan duen produktua askoz gehiago izan da inportazioko produktuaren bolumena baino. Zehazki, ekitaldi honetan, fruten eta barazkien merkatuan Estatutik zetozen 187.815 tn merkaturatu dira guztira, eta inportaturikoak 26.862 tn izan dira, gehienak Europako Erkidegotik.»

Merkaturatutako frutaren %30,86 Valentziako Erkidegotik etorri da, bere ekarpenari eutsita, eta ondoren Katalunia eta Kanariak datoz, %14,03rekin eta %12,94rekin, hurrenez hurren. la autonomia-erkidego guztiek indize berak edo hobeak izan dituzte, Kanariak izan

ESTATUKO PRODUKTUEN JATORRI NAGUSIAK (produktuaren %, merkatuan guztira merkaturatutako bolumenetik):

VALENTZIAKO ERKIDEGOA 51.339 tn **(23,87%)**

- Laranja (30.660 tn)
- Mandarina (7.801 tn)
- Tipula (4.729 tn)

ANDALUZIA 29.312 tn **(13,63%)**

- Tomatea (9.550 tn)
- Marrubia (4.462 tn)
- Piperra (2.932 tn)

KATALUNIA 19.982 tn **(9,29%)**


- Sagarra (11.726 tn)
- Melokotoia (2.960 tn)
- Madaria (2.815 tn)

KANARIAK 19.526 tn **(9,08%)**

- Banana (18.592 tn)
- Papaia (26 tn)
- Ahuakatea (16 tn)

EUSKADI 5.023 tn **(2,34%)**

- Patata (1.654 tn)
- Letxuga (1454 tn)
- Kiwia (125 tn)



IMPORTAZIOKO PRODUKTUEN JATORRI NAGUSIAK (produktuaren %, merkatuan guztira merkaturatutako bolumenetik):

FRANTZIA 4.240 Tn

- Sagarra (1.673 tn)
- Patata (1.171 tn)
- Intxaurra (622 tn)

ITALIA 4.217 tn

- Kiwia (2.099 tn)
- Sagarra (1.644 tn)
- Mahatsa (474 tn)

MAROKO 3.588 tn


- Babak (2.164 tn)
- Laranjak (565 tn)
- Baratze-marrubiak (474 tn)

COSTA RICA 2.878 toneladas

- Anana (2.782 tn)
- Meloia (39 tn)
- Sandia (32 tn)

THILE 1.716 toneladas

- Sagarra (653 tn)
- Kiwia (569 tn)
- Mahatsa (198 tn)





ezik; izan ere, haren indizea $-%4,55$ jaitsi da, inpaktu handia eraginda merkaturatutako frutaren zifra orokorrean, 888 tn gutxiago izan baitira.

Jatorria Estatuko merkatuan duten barazkiei dagokienez, Andaluziak kuota irabazten jarraitzen du, eta bere hegemoniari eutsi dio, barazki-hornitzaile nagusi gisa, guztiaren $\%28,72$ rekin, ondotik Errioxa ($\%18,60$) eta Gaztela eta Leon (ia $\%15$) dauzkala. Euskadiren ekarpena areagotu egin da, eta $\%7,15$ era iritsi.

Fruten inportazioak apur bat gehitu dira, 2014koen aldean. Afrikako inportazioak nabarmen handitu dira ($+%44,68$), batez ere

laranjak, baratze-marrubiak, mahatsa eta pomeloak, baina gainerako jatorriek zeinu negatiboa agertzen dute.

Inportazioko barazkien sarrera $\%4,20$ igo da. Gehikuntza handia ikusten da Europako Erkidegotik iristen diren inportazioetan ($+%15,34$), handik baitatoz gehienbat patata, tomatea eta azalorea.

**Mercabilbaon
merkaturatutako
produktu guztietatik,
 $\%87,49$ Estatutik
etorri dira, eta $\%12,51$
inportatutako produktuak
izan dira**

→ ARRAINEN, ITSASKIEN ETA ITSAS PRODUKTU IZOZTUEN MERKATUA

Arrainen, itsaskien eta itsas produktu izoztuen merkatuak 2015ean merkaturatu zuen bolumena 27.711 tn izan zen, 2014an baino apur bat txikiagoa.

Merkaturatzeak izandako jaitziera txiki horren arrazoia izan da arrainen salmenta $-1,35\%$ eta itsaskien salmenta $-0,35\%$ gutxitu izana; alabaina, produktu izoztuaren zifrak gutxitze horien ondorioak moteldu ditu, $0,52\%$ igo baita.


Prezioei dagokienez, beste urte batez, igotzeko joera egon da merkatua osatzen duten produktu-talde guztietan. Batez besteko prezioa 6,20 €/kg izan da, eta igoera, ondorioz, $5,08\%$ koa. Nabarmendu behar da produktu izoztuaren batez besteko prezioa $8,19\%$ handitu izana.

→ PRODUKTU FRESKOA

Produktu freskoa merkaturan merkaturatutako produktu guztiaren 80% da. 2015ean zehar, 22.168 tn merkaturatu dira, eta haien batez besteko prezioa 6,40 €/kg izan da, $4,9\%$ handiagoa, 2014koaren aldean.

Arrainak 17.347 tn
Itsaskiak 4.821 tn

Produktu fresko gutxiago merkaturatu da, 2014ko ekitaldiaren aldean.



Gehien kontsumitu diren arrain freskoak txitxarroa, legatza, oilarra, antxoa eta bakalada izan dira. Gehien merkaturatutako bost arrainen artean, antxoaren kontsumoa baino ez da handitu ($+4,04\%$), eta nabarmenak dira, gainera, txitxarroaren eta oilarraren jaitziera, $-7,02\%$ eta $-4,36\%$ galdurik, hurrenez hurren. Beste muturrean daude pantxoa eta txelba hortzandia deritzen arrainak, merkaturan eragin gutxi duten produktuak izanik ere, oso igoera handiak izan baitituzte, $+155,41\%$ koa eta $+131,44\%$ koa, hurrenez hurren. Merkaturan toki zabala daukaten arrainen artean, berdelak izan du igoerarik handiena, $+52,91\%$ gehitu baita ekitaldiko datuen aldean. Euskadiko dietan oso ezagunak diren beste espezie batzuek ere



hobetu dituzte merkaturatze-zifrak, hala nola, bisiguak (+%3,80) edo erreboiloak (+%2,89).

Produktu freskoen beste talde batean itsaskiak dauzkagu. Talde honetan, muskuiluak, karrakelak, txirlak, buia eta nekora izan dira eskari handieneko produktuak. Gehien merkaturatutako itsaskien artean, guztiek atzera egin dute salmenta-zifretan, eta oso nabarmenak dira buiaren (-%4,42) eta nekoren (-%14,76) kasuak.

→ PRODUKTU IZOZTUA

2015ean, 5.542 tn produktu izoztu merkaturatu dira Mercabilbaon; horren arabera, beraz, %0,52ko igoera gertatu da aurreko ekitaldiaren aldean. Elikagai izoztuen batez besteko prezioa 7,00 €/kg izan da, 2014ko ekitaldian izandakoa baino %8,19 handiagoa.

Arrainak 4.098 tn
Itsaskiak 1.123 tn
Produktu prestatuak 322 tn

Produktu izoztuen taldean, txipiroia, otarrainxka eta legatza dira bolumenaren aldetik nabarmentzen diren produktuak, gainerakoen aldean. Ikus daiteke, gehien merkaturatzen diren bost produktu izoztuen artean, otarrainxka eta txipiroia gehikuntza-indize handiak dituztela, hain zuzen ere, +%32,25koa eta +%36,86koa, hurrenez hurren.

Arrainen, itsaskien eta itsas produktu izoztuen merkatuak 27.711 tn merkaturatu zituen 2015ean, batez besteko prezioa %5,08 gehituta

PRESENTZIA HANDIENAKO itsaskiak:

1. Muskuilua	2.253 tn	-0,39%
2. Karrakela	538 tn	-0,31%
3. Txirla	508 tn	-0,58%
4. Buia	313 tn	-4,42%
5. Nekora	449 tn	-14,76%


IGOERA HANDIENAKO itsaskiak:

1. Izkiratzarra	+252,38 %	(70 kg)
2. Otarrainxka	+266,38 %	(157,6 tn)
3. Otarraina	+51,09 %	(07 kg)
4. Kadeluxa	+10,21 %	(313 Kg)
5. Izkira	+3,42 %	(29,9 tn)

JAITSIERA HANDIENAKO itsaskiak:

1. Datila	-40,61 %	(5,1 tn)
2. Bieira	-19,25 %	(860 Kg)
3. Nekora	-14,76 %	(449 tn)
4. Abakandoa	-13,74 %	(44,4 tn)
5. Txangurrua	-10,48%	(91,3 tn)





Bizkaiko golkoko portuak dira oraindik arrain freskoaren hornitzaile nagusiak Mercabilbaon

PRESENTZIA HANDIENAKO izoztuak:

1. Txipiroia	1.265.075 Kg	+2,70%
2. Otarrainxka	746.216 Kg	+32,65%
3. Legatza	742.802 Kg	-13,77%
4. Merlenka	327.933 Kg	-23,39%
5. Bakailaoa	311.996 Kg	+8,05%

IGOERA HANDIENAKO izoztuak:

1. Panga-xerrak	+126,22%	(16,6 tn)
2. Txirla	+86,68%	(5,2 tn)
3. Txibia	+44,26%	(14,6 tn)
4. Ganbak	+36,86%	(273,3 tn)
5. Atuna	+32,29%	(6,5 tn)

JAITSIERA HANDIENAKO izoztuak:

1. Merlenka	-23,39%	(327,9 tn)
2. Legatza	-13,77%	(742,8 tn)
3. Mihi-arraina	-5,31%	(27,9 tn)
4. Txaka	-2,32%	(161,5 tn)

→ MERKATUKO PRODUKTUEN JATORRIA

Barne-merkatutik datorren produktuaren presentziak gora jarraitzen du; horrela, merkatu honetako guztiaren %61,49k (17.040 tn) Estatuan du jatorria.

Bizkaiko golkoko portuek eutsi egiten diote, eta oraindik arrain freskoaren hornitzaile nagusiak dira, zifrak berreskuratuta, 2014ko ekitaldian izaniko jaitsieraren ondoren. Igoera horren bestelako jokabidea izan du Galiziatik datorren produktuak, bigarren jatorri nagusia izanik, %0,80 galdu baitu merkaturatze-bolumenean. Galiziako portuetatik etorri da, ordea, itsaskien %53,71, barne-merkatutik etortzen den ia produktu guztia.

Bestalde, inportazioko produktuak salmenta guztien %38,51 (10.671 tn) izan dira. Talde honen barruan, arrainei zein itsaskiei dagokienez, bolumen handiena Europako Erkidegotik dator, izan ere, inportatutako produktu guztiaren %18,19 da.

ESTATUKO PRODUKTUEN JATORRI NAGUSIAK (produktuaren %, merkatuan guztira merkaturatutako bolumenetik):

GALIZIA 6.219 tn **(28,05%)**

- Muskuilua (2.153 tn)
- Legatza (1.101 tn)
- Txitxarroa (665 tn)

EUSKADI 4.798 tn **(21,65%)**

- Txitxarroa (931 tn)
- Legatza (632 tn)
- Bakalada (628 tn)

ASTURIAS 1.328 tn **(5,99%)**


- Bakalada (417 tn)
- Txitxarroa (338 tn)
- Legatza (154 tn)

KANTABRIA 1.260 tn **(5,69%)**

- Txitxarroa (310 tn)
- Antxoa (305 tn)
- Hegaluzea (122 tn)

ANDALUCIA 971 tn **(4,38%)**

- Sardina (269 tn)
- Antxoa (233 tn)
- Olagarroa (100 tn)



IMPORTAZIOKO PRODUKTU JATORRI NAGUSIAK (produktuaren %)

EUROPAKO ERKIDEGOA 4.560 tn **(20,57%)**

- Oilarra (750 tn)
- Nekora (449 tn)
- Karrakela (418 tn)

EFTA (Islandia eta Norvegia) 1.181 tn **(5,33%)**

- Izokina (1.006 tn)
- Bakailaoa (171 tn)
- Halibuta (2 tn)


IMPORTAZIOKO PRODUKTU IZOZTU NAGUSIAK (produktuaren %)

AFRIKA 1.464 tn **(26,42%)**


- Txipiroia (702 tn)
- Ganba (264 tn)
- Olagarroa (143 tn)

HEGO AMERIKA 1.444 tn **(26,05%)**

- Legatza (587 tn)
- Otarrainxka (584 tn)
- Txipiroia (282 tn)

EUROPAKO ERKIDEGOA 480 tn **(8,67%)**

- Bakailaoa (241 tn)
- Zigala (55 tn)





→ ASKOTARIKOEN MERKATUA

Askotarikoen merkaturan 15 enpresak kudeaturiko 27 biltegi daude, eta haietatik 12 haragi-produktuen, arrautzen, esnekien, produktu izoztuen, ogiaren, gozokien eta janarien salmentan aritzen dira, 7 frutak, barazkiak, arrainak eta itsaskiak biltegiratzeko, prestatzeko eta banatzeko atonduta daude, eta 8 logistika-lanetarakoak dira.

2015ean, merkatuak 3.581 tn merkaturatu zituen, aurreko ekitaldian baino %0,06 gutxiago, alegia.

Jaitsiera hori azken ekitaldietako bidetik doa, eta horren arrazoia da esneki gutxiago merkaturatu izana eta oilaskoen eta haragi-produktu

eratorrien aldetik jaitsiera nabarmenak gertatu izana, hurrenez hurren, -%9,98 eta -%6,83 egin baitute behera. Nabarmendu behar da, alabaina, arkumearen eta behikiaren salmentetan ia %10eko igoerak izan direla; horrek, hain zuzen, aipatutako salmenta-jaitsieren ondorioak moteldu ditu.


Arkumearen eta behikiaren salmentak %10 igo dira 2015ean, oilaskoaren banaketa jaitsi den berbera ia



ASKOTARIKOEN MERKATUKO PRODUKTU SALDUENAK:

1. Arrautzak	985 tn
2. Esnea	599 tn
3. Hainbat aragi produktu eta hestebeteak	209 tn
4. Behikia	180 tn
5. Oilaskoa	66 tn


FRUTEN ETA BARAZKIEN MERKATUA




Merkatuen bilakaera, 2011-2015 (tonak)

Merkatueta bategi besteko prezioaren bilakaera, 2011-2015

ARRAINEN, ITSASKIEN ETA ITSAS PRODUKTU IZOZTUEN MERKATUA



ASKOTARIKOEN MERKATUA





Zerbitzuak

→ INSTALAZIOAK

- ✓ Asfalto urtua kendu da hozkailu nagusiaren kaltetatik, Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko albaitaritza-zerbitzuaren proposamenari jarraituta. Zoladuran aire zabalerako hormigoi erdi leundua ezarri da, proba pilotu gisa, geroago gainerako kaltetara hedatzeko.
- ✓ Hotz-ganberetan segurtasun-elementuak, ez harrapatzeko sentsoreak eta barneko segurtasun-etengailuak jarri dira, Laneko Arriskuen Prebentzioko (LAP) auditoriak hala eskatuta, erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko. Fruten eta barazkien pabiloietako eguneko erreserbarako hotz-ganberetan,



2015ean, hainbat jarduera egin dira instalazioen egoera, segurtasuna eta ingurumenarekiko errespetua hobetzeko

irekitze-sistema ordeztu da, eta hozkailu nagusiko ganberetan ateak ixteko sistemaren programazioa aldatu eta hobetu da, argindar-etendietan automatikoki ez irekitzeko.

- ✓ Hozkailu nagusian, apalategiak dauzkaten ganbera guztietan, informazio-panel bat jarri da, alokatutako modulu bakoitzak gehienez jasan dezakeen zama azaldurik, bai eta halakoak erabiltzeko zenbait segurtasun-gomendio ere, biltegiatze-lanak segurtasunarekin egiteko lagungarri izan daitezen.
- ✓ Fruten eta barazkien pabiloiko postu batean, hotz-ganberako zorua osasun-arloko araudira egokitu da.

- ✓ Arrainen pabiloia nahiz fruten eta barazkien pabiloia estalkiak hobetu dira, argi-zuloak ordeztuta eta lamak pintatuta, argiztapen naturalaren mesedetan. Gutxi gorabehera, 1.000 m² plaka zeharrargi ordeztu dira, denboraren poderioz ez baitzuten beren funtzioa betetzen, erabat opaku egonik, eta, halakoen ordeztu, polikarbonato trinkozko plaka berriak jarri dira. Material horrek kazkabarra jasaten du eta UV izpien aurkako babesa dauka, erabat gardena izateaz gain, eguzkiaren argia gehiago aprobetxatzeko. Hori dela-eta, pabiloian argiztapen naturala eduki ahal izan da, eguneko orduetan ez baita beharrezkoa argiztapeneko inongo elementu osagarririk. Horren ondorioz energia aurrezten denez,

Energiaren Euskal Erakundeari (EEE) inbertsioan diruz laguntzeko eskatu zitzaion, eta obraren %20 ordain zezan lortu zen.


- ✓ Mercabilbaoren errotuluak eta irudi korporatiboa pintatu dira Zerbitzu Medikoaren eraikinean eta fruten eta barazkien garai bateko konfiskaziogunean dagoen biltegiatze-eremu berriaren itxituren, eta merkatuaren barruko pintura berritzen jarraitu da, bai markaren irudia hobetzeko, bai metalezko egiturak babesteko. Balio anitzeko pabiloiko solairuarterean, pintura-lana egin da eta argiztapena hobetu da bulegoetarako sarbide-galerietako eremu komunetan, eta, halaber, bulego berria prestatu da bulego nagusietan, antolakuntzaren aldetik aldaketak sortzekotan, haietara egokitzeko.
- ✓ Fruten eta barazkien 3. pabiloian erabiltzen ez zen solairuarte bat egokitu da bulego berria eta aldagela bat jartzeko, azpikontratentzat.

Halaber, Mercabilbaoko bulego nagusiak berriz diseinatzeko proiektu bat egin da, haien erabilera optimizatzeko eta haien irudia hobetzeko. Jarduera horiek irudia hobetzeko eta eremu berriak aprobetxatzeko ildoaren barruan daude.

- ✓ Merkatuaren egitura-azterlan bat egitea kontratatu da, gida-plan gisa erabiltzeko, instalazioen behar errealak eta haien egoera identifikatzeko, bai eta egin beharreko egiturazko hobekuntzak ere, salgaiak banatzeko eremuak zabaltzeko.
- ✓ Arrainen pabiloiko barne-zoladuran 160 m² konpondu dira, eta pabiloiaren nasen aldea estaltzen duen egitura saneatu eta pintatu da. Xafla eta zertxekin osatutako egitura horren azalera 4.000 m² inguru da, eta lehenik eta behin presiozko urarekin garbitu behar izan da, gero herdoila zuten azalak saneatu dira, eta zink ugariko hasierako inprimazio bat

eman zaio; azkenik, poliuretano alifatikozko bi geruza eman zaizkio.

- ✓ Fruten eta barazkien pabiloien barne-argiztapenerako sistema optimizatu eta hobetu da; horretarako, indukziozko ekipamenduak ordeztu dira (arrainen pabiloian birkokatuko dira), LED teknologia duten beste batzuk, kontsumo txikiagokoak, jarrita. Ildo horretan, bulego nagusietako argiztapen fluoreszenteko elementuak ordeztu dira, kontsumo txikiko LED ekipamenduak instalatuta. Horietan guztietan asko aurreztea lortu da, energiaren kontsumoaren aldetik zein mantentzeko eta elementuak ordezteko lanen aldetik.
- ✓ Balio anitzeko pabiloiko postu bat barazkiak manipulatzeko egokitu da.
- ✓ Bertako ekoizleak (baserritarrak) berregituratu dira, espazioa optimizatzeko, lokal



berria frutak eta barazkiak biltegitratzeko hozkailutzat egokiturik..

- ✓ Metalezko estalki bat eraiki da, frutak eta barazkiak manipulatzeko eremu bat estaltzeko, hozkailu nagusiaren fatxadan.
- ✓ Prebentzioko auditorietan antzemandako anomaliak zuzendu dira, errementari-lanen bidez.
- ✓ Edateko uraren lurrazpiko hodiekin izaniko bi haustura konpondu dira erdiko bidean, bata bananen 6. pabiloiaren parean, eta bestea fruten eta barazkien 3. pabiloiaren parean; hain zuzen ere, ixteko balbulak eta instalazioaren zati bat ordeztu ziren.

✓ Merkatuko bideak uraren bidez garbitzeko urez hornitzen duen putzuko elektroponpa ordeztu da..

- ✓ Sarbide nagusiko abonatuaren erreian dagoen bigarren garita klimatizatu da.
- ✓ Goi-tentsioko horniduraren linea-aldaketako sistema konpondu da, transformaziorik gabeko egokitu dira, eta nahitaez egin beharreko aldizkako ikuskarpenaren ondoren (KEB) behe-tentsioko instalazioan agertutako anomaliak konpondu dira. Halaber, behe-tentsioko instalazio elektrikoaren proiektua egin da, gero behar diren elementuak konpontzeko.
- ✓ Koordinazioa eraman da aurrera Basauriko Udalarekin sarbideak konpontzeko,

perimetroko espaloiak birmoldatzeko, eta autobus-geralekua lekualdatzeko.

- ✓ Mercabilbaok dauzkan kontrol-elementuak kalibratu dira, hala nola, hozkailu nagusiko tenperatura-erregistragailua, birpisuko baskulak, sare-analizagailua, emari-neurgailua, kontagailuak, eta neurtzeko gainerako elementuak, erdi-tentsioko instalazioari nahitaez egin beharreko aldizkako ikuskarpena egiteaz gain. Jarduera horiek planifikatutako ikuskarpen-lanen barrukoak dira.
- ✓ Asfaltoa konpondu da bideek hondatuen dauzkaten aldeetan.
- ✓ Estalkietan, urteroko prebentziozko mantentze-lanak egin dira, bai eta segurtasun-soken urteroko ikuskarpena ere.

Egunero 2.687 ibilgailu sartu ziren Mercabilbaora 2015ean

→ IBILGAILU-MUGIMENDUA

Guztira, 679.782 ibilgailu sartu dira 2015ean zehar Mercabilbaora, aurreko ekitaldian baino apur bat gutxiago.

Ibilgailu sarrera	2014	2015	%
Automobilak eta furgonetak	617.440	614.558	-0,47
3.500 kg gorako kamioiak (2 ardatz)	37.418	35.262	-5,76
3.500 kg gorako kamioiak (3 ardatz)	28.710	29.962	4,36
GUZTIRA	683.568	679.782	-0,55

→ SEGURTASUNA

- ✓ Oinezkoentzako erreia mugatu da salmenta eta erakusketarako eremuko korridoreetan, beste kolore batez bereizirik, eta, era berean, barne-zoladura hobetu da fruten eta barazkien pabiloian.
- ✓ Bideozaintzako TZI sistemaren ekipamenduak hobetu dira, ez zebiltzan ekipamenduak ordeztuta (9 zaintza-kamera) eta kontrolpeko eremuak zabalduta.
- ✓ Irrati-igorgailuetan erabiltzen den materiala berritu da, komunikazioa hobetzeko barne-pertsonalaren, Mantentze-lanetako taldearen eta Merkazaintzaren eta zaintza eta atezaintzako kontrataren artean.
- ✓ Megafonia-sistema egokitu da, irrati-igorgailu bidezko komunikazioetan kanal arinago, dinamikoago eta eraginkorragoa sortzeko; horrela, gorabehera gertatu den tokitik 24 ordu/365 eguneko sarbideko garita nagusiari abisua ematen zaio, hark horren berri berehala eman ahal izateko pabiloi guztiei. Esaterako, barne-kontrolpeko taldeko edozein kide (merkazaina) edo kontratatutako enpresako kide batek (laguntzaileak eta zaintzaileak) eman dezake abisua sutea, osasuneko edo zirkulazioko gorabehera bat, eta abar gertatzen denean.
- ✓ Mercabilbaok dauzkan sute-aho guztiak ordeztu dira, eta, halaber, sua itzaltzeko sistemei

eta suteen aurkako ekipamenduei nahitaez egin beharreko urteroko ikuskapena egin da. Jarduera horiek prebentziozko mantentze-lanen barrukoak dira.

- ✓ Sarbideko langa guztietan, LED-zerrenden bidez, berariazko ikusgaitasun-elementuak instalatu dira, sarreran zein irteeran, nabarmenagoak izan daitezten, ibilgailuek langa horien kontra ematen dituzten kolpeak saihesteko.
- ✓ Arrainen pabiloira sartzen den pertsonala kontrolatzeko sistema bat ezarri da, Arrain Handizkarien Elkartek hala eskaturik; erosleei saldu aurreko orduan sarbidea mugatzen du sistema horrek, instalazioa itxita dagoen bitartean. Denbora horretan, kontrol zorrotza egiten da; izan ere, pabiloi barruan handizkako postuetako enplegatuak baino ezin egon daitezke, txartel batzuekin identifikatuta (txartelok ikusteko moduan eramaten dituzte, kontrola errazteko, hura kontsultatu edo eskatu nahi bada).
- ✓ Zenbait aparkaleku-eremu berrantolatu dira, aparkalekua kategoriaka bereizte aldera, gehien erabiltzen diren orduetan; era berean, seinaleztapen horizontala hobetu da merkatu osoan: zebrabideak, "utzi pasatzen", erreien eta zamalanetako kaien mugak, eta abar.
- ✓ Merkazaintzako eta Mantentze-lanetako taldeen jantziak ordeztu dira, eta bi zerbitzuetan irudi korporatibo bateratua sortu da; horrela,



laz %3,15 murriztu zen ur-gastua, argindar-kontsumoak bere horretan jarraitu zuen, eta hondakin organikoen bilketa %65,4 gehitu zen

merkatuaren erabiltzaileek errazago bereizten dituzte. Lanerako arropa berria egokituta dago, jakina, Laneko Arriskuen Prebentzioaren aldetik dagokion araudira.

- ✓ Mercabilbaoko barrutian, bertan behera utzita egotearen aztarnak dauzkaten ibilgailuak eraman dira bertatik era jarraituan, hiri-hondakin gisa, Basauriko Udalarekin koordinaturik.
- ✓ Hirugarren urtez jarraian, Leneko Arriskuen Prebentzioko Urteko Auditoria egin da (arlo horretan eginiko lana gainbegiratzeko), eta dagozkion aukera-eremuak identifikatu ditu, etengabeko hobekuntzaren bidetik jarraitzeko.

→ INGURUMENA

- ✓ Ingurumen Txostena egin da, merkatuan diharduten enpresek udalaren jarduera-lizentzian eskaturiko baldintzak bete ditzaten.
- ✓ ISO 14001 ziurtagiria berritu da.
- ✓ 2015eko urrian, Mercabilbaoko hondakinak biltzeko eta garbiketa egiteko kontratu berri bat hasi da, balorizazio handiagoaren aldeko apustua eginik, eta zerbitzu hori emateko eskakizunak areagoturik; CESPA, S.A. da, hain zuzen, zerbitzu hori ematen ari den enpresa. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak aurreko kontratuaren esleipena lau urtera geldiarazi eta gero. Bilboko Udalarekin negoziazioak egiten ari dira, zerbitzu hori



udal-esparruan kontratatutako zerbitzu batean integratzeko.

- ✓ 2016ko lehen 6 hilabeteetarako, IBERDROLA Clientes, S.A.U.ri esleitu zaio Mercabilbaoko argindar-horniduraren kontratua. 2015eko abenduan bukatu zen Mercabilbaoko argindar-horniduraren kontratua; hartara, lehen aipatutako kontratua bezala, kontratatzailearen profilean argitaratu zen, eta webgunean (www.mercabilbao.es) zein Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman (www.contrataciondelestado.es) izan zen eskuragarri; era berean, EBAOn ere argitaratu zen. Geroago, aurreikusi da Bilboko Udalak udal esparru-kontratu batean integratuko duela.

2015EKO INGURUMEN-KOPURU NAGUSIAK:

- 2015ean, guztira kontsumitutako ura, merkatua garbitzeko erabilitakoa barne, 31.240 m³ izan da, eta aurreko urtean, aldiz, 32.255 m³ izan zen; horrenbestez, ur-kontsumoa %3,15 murriztu da. Gutxitze horren arrazoia izan da arrainen pabiloian aurrera eraman diren prebentziozko mantentze-lanak; izan ere, aurreko urtean bi ur-jario gertatu ziren, eta, hausturak saihesteko, edateko urez hornitzeko instalazioa ordeztu zen. Handizkako enpresen ur-kontsumoa %14,40 igo da aurreko urtearen aldean, eta merkatuan egiten den kontsumo guztiaren %57,81 da haien kontsumoa.
- Urtean guztira egiten den argindar-kontsumoa orekatu egin da, 8.481 mila kWh izan baita, 2014an bezainbeste.
- 2015ean, hondakin organikoen bilketa 642,5 tn-koa izan zen, 2014ko 388,4 tonen aldean, hau da, %65,4 handiagoa izan da. Hor ikusten da fruten eta barazkien materia organikoa birziklatzeko sentsibilizazio-kanpainen eragin positiboa. Eragin hori izan du, orobat, baserritarrak konfiskaturiko fruta eta barazkien hartzaile bihurtzeak, gero ganaduari jaten emanez berrerabiltzeko, Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko albaitariak egiten duten lanari esker, baheketa egin, eta animalien kontsumorako ona den jeneroa hautatzen baitute. 2015eko urtarrilaz geroztik, Mercabilbaok gure instalazioetara datozen abeltzainak erroldatu eta kontrolatu ditu, nekazaritzako ustiapen-txartela eta abereen errolda eskatuta.
- Hiri-hondakinen pareko jotakoen bilketa %3 gehitu da: 2.042 tn kendu dira (aurreko urtean baino 59 tn gehiago), hau da, sartutako salgaien %0,83.
- Hondakin guztietatik, birziklatu den ehunekoa %38,4 izan da, hau da, sartutako salgaien %0,52.
- Garbiketaren eta hondakin-bilketaren kostuen kontabilitate orokorrari dagokionez, %84,2 langileria-kostu, baliabide material eta ustiapen-kostuena da, eta %15,8 hondakinen tratamendurako da, garraioa eta isurketa-kanonak barne hartuta.



Gizartea

Gizarteak ez du nahi geure balioez hitz egin dezagun; balio horiek frogatzen dituzagun nahi du, modu aktiboan parte hartuz, geure gaitasunen arabera, eginkizun sozial eraginkorrago bat bete dezakegun jardueretan.

→ ZENTZUMEN-TAILERRAK

Arrainen, fruten eta barazkien zentzumen-tailerrak alternatiba praktikoa dira ikasleei elikagai horien zikloa erakusteko, itsasoan harrapatu edo baratzean biltzen direnetik, gure mahaietara iritsi arte. Tailer horietan, ikasleek fruta-zuku egin berriak dasta ditzakete, bai eta arrain-pintxoak ere, tailerra egitean ikusi eta ukitu dituzten arrain-mota berberekin eginak.



Slow Food Bilbao-Bizkaia egiten dituen tailer hauek, gainera, gure elikagai-ondarea nahiz Mercabilbaok gure bizitzeko eta elikatzeko modua hobetzeko daukan rola balioesten irakasten diete.

Bisita egin eta gero, ikasleen zein haien irakasleen iritzia biltzen da, egin den jardueraren inguruan. Irakasleek, batez beste, emandako balorazioa 10etik 9,20 izan da. Ikasleek ere batez besteko balorazio handia eman dute: 9,36. Ondorio gisa, jarduera honetan ezarritako helburuak aski eta sobera bete direla esan daiteke.

2014-2015eko ikasturtean, Bizkaiko 24 ikastetxetako 51 ikasgelak parte hartu dute tailerretan; guztira, 878 ikasle eta 86 irakasle izan

dira. Zentzumen-tailerretan izandako pertsonakopurua %23,55 txikiagoa izan da, 2014an baino. 2014ko urrian zentzumen-tailerren 2015/2016ko zikloa ireki zen, eta 50 egun baliodun egon ziren urritik maiatzera; 34 ikastetxek eman zuten izena, eta 1.037 ikasle izan ziren. Urrian eta azaroan 9 ikastetxek bisitatu dituzte tailerrak, 284 ikaslerekin.

→ BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA

Mercabilbaoko operadoreek Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin duten lankidetzaren ondorioz, 431 tn salgai eman zaizkio, eta hori erakundeak biltzen duen guztiaren %21 da. Aurreko urtean, merkatuko 29 enpresak lagundu diote irabazi asmorik gabeko elkarte horri.

Zentzumen-tailerrak, Bizkaiko Elikagaien Bankuarekin egiten den lankidetzaren babesa, DYArekin ezarritako aliantza, eta irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeekin aurrera eramaten den lankidetzaren gauzatzen duen eginkizun sozialaren zati baten erakusgarri dira

→ KIROLAREN BABESA

Mercabilbaok Deustu Arraun Taldearen kirol-jarduerak sustatzen jarraitu du, eta taldeak, hain zuzen ere, kirol-egutegi zabala izan du 2015ean.

Urte honetan, arraun-taldeak -2014an KAE-1 mailara igo ondoren- lorturiko emaitzak nabarmendu behar dira. Hala, bada, 2015ean Kantauriko Arraun Elkartearen (KAE) traineruligan parte hartu du, 1. taldean, KAE - San Miguel ligaren atarikoan, hain zuzen. Guztira, 16 estropadatan parte hartu du, hau da, KAE-1 ligako 14tan, Bizkaiko Txapelketako estropadan eta, azkenik, Kontxako Banderarako sailkatze-estropadan, irailaren 3an.



Halaber, sailkapen bikainak lortu dituzte: laugarren postua lortu du KAE-1 ligako sailkapen orokorrean; bandera bat irabazi zuen Pedreñan (KAE ligan bandera bat irabazi duen klub bizkaitar bakarra, 1. taldean zein 2. taldean), eta ia liga guztian ohorezko txandan lehiatu da.

Ez da gutxiagokoa izan emakumezkoen taldeak izaniko lorpen historikoa, Bizkaiko Batel Ligan irabazle irten ziren-eta.

→ **DYA ERREPIDEAN LAGUNTZEKO ELKARTEA**

DYArekin ezarritako aliantzak eguneroko laguntza medikoa ematen dio Mercabilbaori, merkatuko langileentzat. Era berean, jokabide

osasuntsuen inguruko kanpainak ere egiten dira, eta hori lagungarri da lan-produktibitatea hobetzeko.

→ **IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ELKARTE ETA ERAKUNDE BATZUEKIN AURRERA ERAMATEN DEN LANKIDETZA**

Mercabilbao, 2015ean, hainbat elkarterekin batera aritu da lankidetzan, hala nola, Minbiziaren Aurkako Elkarterekin eta Chernobileko Umeak Bizkaia elkarterekin (GKE horrek Txernobyngo hondamendiak kaltetutako umeei laguntza humanitarioa ematen dihardu, Euskal Herriko familietan harrera egiteko programen bidez).

→ **“5 AL DÍA” FUNDAZIOA**

Mercabilbao fundazio horretako bazkide laguntzailea da, eta gizartea fruta eta barazkiak hartzearen onurez informatzea da erakundearen xedea. Fundazioarekin eta merkatuko handizkari batekin batera, azaroan “Frutateka ibiltaria” jarri zen Areatzako kaian, Bilbon.



Bezeroak

Mercabilbaok egiten duen kudeaketarekin erabiltzaileek zer asebetetze-maila duten jakiteko, urtero galdetegi bat banatzen zaie erabiltzaileei, handizkari zein txikizkari, borondatez erantzutekoa.

Inkestaren xedea da zehaztea erabiltzaileek zer pertzepzio duten Mercabilbaorengandik jasotzen dituzten zerbitzuez (segurtasuna, mantentze-lanak, garbiketa, mugikortasuna, hondakinen kudeaketa eta komunikazioa), bai eta bezeroari ematen zaion arretaz ere.

→ EMAITZEN AZALPENA

Inkestari 51 handizkako enpresa eta merkataritza-lokalek erantzun diote; horren arabera, parte-

→ ZERBITZUEN GARRANTZIA

(1etik 5era doan balorazio batean)

Handizkariak hurrenkera honetan ezarri dituzte garrantzi handienekoak: segurtasuna, garbiketa, mantentze-lanak, pertsonala, mugikortasuna, merkatuaren sustapena, hondakinen kudeaketa, eta komunikazioa. Txikizkariak, bestalde, hurrenkera honetan baloratu dute garrantzia: segurtasuna, garbiketa, mugikortasuna, mantentze-lanak, hondakinen kudeaketa, pertsonala, merkatuaren sustapena, eta komunikazioa.

Mugikortasuna

Inkesta egin zaien handizkako enpresen eta merkataritza-lokalen erabiltzaileen %86 asebeteta agertzen da barrutian sartzeko itxaron-denborarekin, eta %94 asebeteta dago merkatutik irteteko denborarekin.

Txikizkariak kasuan, %83k onargarritzat jotzen du merkatuan sartzeko itxaron-denbora, eta %95 konforme dago irtetekoarekin.

Txikizkariak asebetetze-mailak gora egin du aparkalekuei dagokionez (%55), 2014an baino %25 handiagoa.

Handizkariak %49k eta txikizkariak %85ek berriz nabarmendu dute korridoreen okupazioa hobetzeko beharra, salmenta-orduetan batik bat.

Garbiketa

Handizkariak, merkataritza-lokalen eta txikizkariak %65 asebeteta dago instalazioen garbitasunarekin. Hala ere, batzuek zein besteek komunak garbiketa hobetu behar dela nabarmendu dute.

Segurtasuna

Handizkariak eta merkataritza-lokalak %68 eta txikizkariak %58 asebeteta agertzen dira segurtasunarekin, bide-segurtasuna eta ondasunen segurtasuna hobetu behar direla adierazita.

Mantentze-lanak

Handizkariak %54 eta txikizkariak %87 asebeteta daude bide eta espaloiak mantentzeko egiten denarekin. Kaiak eta kai azpikoak kasuan, handizkariak zein txikizkariak asebetetze-maila are handiagoa da.

Argiztapen publikoari dagokionez, asebetetze-maila igo egin da, aurreko urtekoaren aldean. Handizkariak %64 eta txikizkariak %92 asebeteta agertu dira (+%35).

Hondakinen kudeaketa

Handizkariak hondakinen kudeaketari emaniko puntuazioa %19 jaitsi da, eta inkestatuen %76k adierazi du birziklapenari buruzko informazioa hobetu behar dela.

Txikizkariak kasuan, galdetutako txikizkariak %78 asebeteta dago hondakinen

hartzea %54koa izan da, gutxi gorabehera. Parte-hartze indizea honako hau izan da, sektore bakoitzean guztira dauden enpresen arabera:

Arrainen merkatua: %74

Fruten, barazkien eta bananen merkatua: %37

Askotariko merkatua: %64

Merkataritza Zentroa: %37

Jarduera osagarriak: %42

Txikizkariak inkestarako, 60 enpresa aukeratu dira ausaz, egunero instalazioetara datozenen artean.

Honakoak izan dira inkesten emaitzak:



Inkesta egin zaien handizkari eta merkataritza-lokalen %69 eta txikizkarien %70 asebeteta daude Mercabilbaok emaniko zerbitzuekin

kudeaketarekin, 2014an baino %18 gutxiago, alegia.

Komunikazioa

Inkesta egin zaien handizkarien %78 eta txikizkarien %46 asebeteta daude komunikazioarekin.

Bestalde, handizkarien %64k eta txikizkarien %54k balioetsi egin dituzte merkatua sustatzeko aurrera eraman diren jarduerak.

→ ASEBETETZE-MAILA OROKORRA

Handizkari eta merkataritza-lokalen %69 (2014an baino %23 gutxiago) eta txikizkarien %70 (aurreko urtean baino %15 gutxiago) asebeteta daude, oro har, Mercabilbaok ematen dituen zerbitzuekin.

→ BEZEROARENTZAKO ARRETA:

Berriz ere, Mercabilbaoko langileek puntuazio handia lortu dute. Handizkarien kasuan, %84k asebeteta edo oso asebeteta dagoela dio, eta, bestalde, inkestatutako txikizkarien %97 asebeteta dago Mercabilbaoko langileek emandako arretarekin.

Handizkariak segurtasuneko kanpo-pertsonalarekin duten asebetetze-maila %30 jaitsi da, eta txikizkarien artean %97an mantendu da.

→ PRODUKTUEN KALITATEA, AUKERA ETA PREZIOA


Txikizkariak eginiko galdera horiek honako emaitza hauek izan dituzte:

- %96k uste du produktu-aukera handia dagoela.
- %50en iritziz, kalitatea handia da.
- %62k pentsatzen du osasun-kontrola ona dela, eta %25ek, aldiz, zuzena dela uste du.
- Prezioei dagokienez, altuak dira %33ren iritziz (2014an, %90 ziren iritzi horretakoak), eta %65ek normaltzat jotzen ditu (aurreko urtean, %23ren iritzia zen hori).

Emaitzen txostenaren kopia eman zaie handizkarien eta txikizkarien elkarteei, eta Mercabilbaoren webgunean argitaratu da (www.mercabilbao.eus). Era berean, kopia eman zaie arloetako buruei, hobetze-jarduerak ateratzeko, interesdunekin focus group eran aztertzeako.

MERCABILBAOn dauden enpresak

Frutak eta barazkiak	31	■
Arrainak	23	■
Askotarikoak	14	■
Merkataritza Zentroa	19	■
Jarduera osagarriak	14	■
Bizkaiko baserritarrak	11	■


ARRAINAK

131	Alazmar S.L.U.
101-103	Arrainko S.L.
124-126	Arraiza y Gutierrez S.L
196	Conifres S.L.
115	Fernando Olabarria S.A.
116	Frío Bilbao S.A.
110	José Crespo S.A.
118-121-123	Las Capotinas S.A.
120-122	Mateo Montes S.L.
107-109	Pérez Viñas S.A.
132	Pescaderías Vascas S.A.
112-114	Pescados Bizkaimar S.L.
104	Pescados Eunete S.L.
117-119	Pescados Hnos. Sainz S.L.
125-127	Pescados Iureta S.A.
102	Pescados La Bermeana S.A.
129	Pescados Txalupa S.L.
128	Pescanova S.A.
111	Pilar y Daniel S.L.
113	RIF Bilbao S.L.
130	Sucres de Pescados Alonso S.L.
105	Triana S.A.
108	Ugena Seseña S.L.

FRUTAK, BARAZKIAK ETA BANANAK

221-323	Alejandro Calvo S.L.
223	Almacenes Villate S.L.
225-226-228	Barroso Elvira S.L
230-32-34-36-37-38-39-40	Bilco S.A.
315	Bilcofrut S.L.
331-333-335-338-340	Bilfruta S.L.
203-205	Cultivar S.A.U.
604-605	Eurobanan Logistica Norte S.L.
314	Frumax S.L.
212-218-220	Frunorte y García S.L.
215-306	F.J. Santamaría Santos y Hnos. S.L.
329	Frutas Fernández 1938 S.L.
332-34-36	Frutas Fonseca S.L.
219-227-229	Frutas y Hortalizas Tito S.L.
325-26-27-28-30	Frutas Iru S.A.
601-602-603	Frutas Iru S.A.
307	Frutas La Rondeña S.L
202-4-6-8-10	Frutas Olmos S.L.
231-233-235	Frutas Olpa S.A..
317-319-321	Frutas Udondo S.L.
217-308-9-10-11-13	Grana Bilbao S.A..
312	Hnos. Pérez Sebastian S.L.
207-209-211-213	Peltisa S.L.
610-15-16-17	Plátanos Tito S.L.
301-303-305	Restituto Martínez S.A..
337-339	Ruiz Osma S.L.
201	Setas y Champiñones Ruiz S.L.
302-304	Torres Hnos. y Sucres S.A..
606	Uria Export S.L.
214-16-316-18-20	Vda. y Hnos. de Nic. Rodríguez S.A.

ASKOTARIKOAK

501	Bilbofres S.L.
522	Carnes Selectas 2000 S.A.
513	Cárnicas Pabela S.L.
511-15-17-21	Com. de Huevos Mosteiro S.L.
505-507	Elaborados Olaifresh S.L.
504-506-508	Hnos. Carrasco Horrillo S.C.
502	Frutas Udondo S.L.
526	Francisco Hernández S.L.
519	Lapera Fr. Y Hort. S.L.
509	Frutas Ceni S.L.
510-512	Frutas Soler y Alex S.L.
514	Pescados y Mariscos R.M. Barriocanal S.L.
516	Transportes Hnos. Barbero S.L.
518-520-524	Transportes Irazabal S.L.
503	Triana S.A.
523-525-527	Ves S.L. (Norcash)

JARDUERA OSAGARRIAK

608-609	Arc Eurobanan Zaragoza S.L.
Frut. y Hort.	Asociación de Detallistas
Rec. Alimentos	Banco de Alimentos de Bizkaia
Congelados	Conifres S.L.
Asistenc. médico-sanitaria	DYA-Botiquin
Fabrica Hielo	Frigoríficos Gago S.A.
Congelados	Frio Bilbao S.A..
614-18-19	Frutas Iru S.A.
611-612-620	Frutas y Hortalizas del Norte S.L.
Logística	Frutas Olmos S.L.
Frut. Y Hort.	Frutas Udondo S.L.
Rec. Envases	Ibarreta 2.000 S.A.
Vivero Mariscos	Incumar S.L.
Acces. Pescad.	Javier García Sáez
Palets	Juan Francisco Guerrero
Palets	Luis José Gutierrez
Congelados	Mateo Montes S.L.
Platafor. pescado	Olano Seafood Ibérica S.A.
Logística	Restituto Martínez S.A..
Carburantes	Socomep (CEPSA)
Logística	Txairo Logística S.L.U.
607	Vda. y Hnos. de N. Rodríguez S.A.

MERKATARITZA-ZENTROA

12	Administración de Lotería
22	Asesoría Ibarreta S.P.V. S.L.
5	Asesoría Larraondo y Asociados S.L.
3	Asoc. de Mayoristas de Frutas
21	Asoc. de Mayoristas de Pescados
16	Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
6	KUTXABANK
4	B.O.C.D.O. Trafic S.L.
23	Cafetería Enara
1	Cafetería Mercabilbao
17	Cafetería Legarreta
7	Falina S.L. (Transportes Rafa)
11	J2 S.L. Equip, Aliment. Y Hostelería
15	Juan Antonio Molina
8	Merkapesaje
18	Oficina de Correos
20	Pablo Sagastizabal (Allianz Seguros)
10	Panadería
13	Servicio de Prevención Segurtek S.L.
14	Taller Sensorial de Pescados




Pertsonak

Mercabilbaoko lantaldea, 2015eko abenduan, 19 pertsonak osatzen zuten, 2014. urtearen bukaeran bezainbeste, eta horrek agerian uzten du Bilboko merkatuaren kudeatzaileek, pertsonalari dagokionez, egonkortasunaren alde egin duten apustua.

Talde horretan 16 gizon eta 3 emakume daude, eta haien batez besteko antzintasuna 20 urtekoa da. %100ek lan-kontratu mugagabea dauka. Batez besteko adina, aurre-erretiroa hartutakoak kontuan hartu gabe, 48 urtekoa da.

→ ABSENTISMO-TASA




Absentismo-tasa orokorra, Mercabilbaoko langileen artean, %6,92koa izan zen 2015ean, 5



MERCABILBAOren ORGANIGRAMA

Aitor Argote	Ander Sopelana	Alberto Markinez	Ima Torres
Begoña Salcedo	Sonia Carballal Fernando Conde Alberto Infestas Jose Luis Lara Jose M. Martinez Ricardo Monedero Iñaki Pagazaurtundua Joseba Ramos Joseba Sagastizabal Valentin Amado Jabi Astui Txema Corces	Iker Almada	Manu Rodríguez

Mercabilbaoko lantaldea, 2015ean, 19 pertsonakoa zen, 2014an bezainbestekoa, eta 20 urteko antzintasuna zuten batez beste

ABSENTISMOA LEI GABE/LAN-ORDUAK (UNITATEAK)**FORMAKUNTZA MERCABILBAO 2015/12/31****FORMAKUNTZA GUZTIRA 2015/12/31**

puntu gehiago aurreko ekitaldian baino. Lan-istripuak kanpo uzten dituen absentismoari dagokionez, tasa hori %0,81ekoa da, eta datu horrek, hain zuzen, aurreko urteetan gertatutako jaitsieraren bidetik jarraitzen du.

→ PRESTAKUNTZA

2015eko ekitaldian zehar, Mercabilbaoko enplegatuek 11 prestakuntza-ikastarotan parte hartu dute, eta guztira 900 ordu eman dira ikastarootan.

Nahiz eta ikastaro-kopurua txikiagoa den, prestakuntzaren orduak nabarmen gehitu dira; horrela, langileko 47 ordu izan dira batez beste, aurreko ekitaldian baino %38 gehiago.

Mercabilbaok 11 prestakuntza-ikastaro antolatu ditu, eta guztira 900 ordu eman dira

Ikastaroen gaiak honakoak izan dira: laneko arriskuen prebentzioa, pertsonen kudeaketa, arrisku penalak, kudeaketaren gardentasuna, ofimatika, eta osasunari lotutako alderdiak.

Handizkarien eta txikizkarien prestakuntzari dagokionez, merkatuari lotuta, elikagaien manipulazioko 11 ikastaro eta ofimatika-ikastaro bat eman dira 2015ean, energia-eraginkortasunari buruzko jardunaldi bat antolatzeaz gain. Prestakuntza-orduen kopurua 417koa izan da, eta 89 langilek parte hartu dute.

Mercabilbaoko langileen eta handizkari eta txikizkarien prestakuntza, guztira, 2015/12/31n



Finantzak

Mercabilbao, S.A.ren 2015eko ekitaldiko emaitza ekonomikoa 521.575 euroko etekina izan da, hau da, aurreko urtean baino %6,9 gutxiago. Emaita operatiboari dagokionez, %12,7 gehitu da, gastuari eutsi izanaren ondorioz.

Baliabide-sorreraren aldetik, kutzako fluxua 1.312 mila eurokoa da.

Emaizen sorreran eta bilakaeran eragin duten alderdi nagusiak hauek izan dira:

→ SARREREN BILAKAERA

Ekitaldiko negozio-zifraren zenbatekoa 3.942.594 eurokoa izan da, 2014ko ekitaldian lortutakoaren parekoa ia.

KPI orokorrak 2014an izandako beherakadaren ondorioz, merkatuko tarifa orokorrak %1 jaitsi ziren. Zerbitzu osagarriei dagokienez, aurreko ekitaldiko moduan jarraitu dute, merkatuko sarbideengatik sorturiko diru-sarreraren zenbatekoa %1,11 gutxituta.


Hornidurengatik sorturiko sarrerak, oro har, %3,42 jaitsi dira, argindarraren eta uraren kontsumoa %5,17 jaitsi delako, batik bat.

Eskualdatzeen ondoriozko sarrerak 13.000 euro izan dira 2015ean; 2014an, kontzeptu beragatik, sarrerak 25.000 eurokoak izan ziren. Kapitulu honetan, gogorarazi behar da kanon horren salbuespena mantentzen dela eskualdatzea finkatutako operadoreen artean gertatzen denean, merkatuko elikagai-sektoreen kontzentrazioa errazteko.

Finantza-emaizta garbiak 71.556 eurokoak izan dira, hau da, ekitaldiko etekin guztiaren %14; aurreko ekitaldian %29 izan zen.

Horren arabera, %55,3ko jaitsiera gertatu da 2014an lortutako zifraren aldean, erreferentziako interes-tasek eurogunean izandako beherakadaren ondorioz. Finantza-erabilgarritasuna %10 igo da aurreko ekitaldiaren aldean, eta lortutako batez besteko errentagarritasuna %0,68 izan da; inbertsioak finantza-tresna seguruen bidez egiten dira, finantza-erakundeei kaudimen-kalifikazioa eskatuta.

GASTUAK




→ ZERBITZUAK

Baliabideen kudeaketa egokiari eta gastuaren euspenari esker, gastuak, oro har, %1,38 jaitsi dira; horren ondorioz, ustiapen-etekina 450.724 eurokoa izan da.



Kanpo-zerbitzuek gastu hauek barne hartzen dituzte: “Konponketak eta mantentze-lanak”, 409.429 euro (%0,16ko jaitsiera); “Zaintza eta atezaintza”, 341.758 euro (%1,25eko jaitsiera); “Garbiketa eta isurketak”, 1.008.612 euro; eta “Argindar- eta ur-hornidurak”, 914.979 euro; bai eta “Beste kanpo-zerbitzu batzuk” epigrafea ere, 258.199 euro, guztira

SARRERAK



Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldiaren aldean %0,45eko igoera izan arren, izoztuta egon dira ekitaldian. Igoeraren arrazoia izan da antzinatasuna ordaintzea, lantaldeko kide batzuek hirurtekoak bete zituzten-eta.


Mercabilbaok ez du gasturik Etekinen gaineko Zergaren ondoriozko zerga-betebeharrengatik, abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauko 39.1 artikulua aplikatzen delako. Izan ere, artikulua hori aplikatzen da sozietatearen kapitala murritzuta eta gero, titulartasun pribatuko akzioak amortizatuz eta sozietatearen estatutuak aldatuz; horrela, sozietatearen kapitala erabat titulartasun publikokoa da gaur egun.

CASH-FLOWen eboluzioa (milaka EURO)**ACTIBOA**

2015ean, Mercabilbaoren emaitza ekonomikoa 521.575 euroko etekina izan da

bakoitzeko, hura bermatzeko 11,27 euro dauzkagu, eta, haietatik, 10,81 finantza-aktiboak dira.

Halaber, gure autonomia-maila -hau da, funts propioak / (ondare garbia + pasiboa)- %95ekoa da.


ONDARE GARBI eta PASIBOA**→ INBERTSIOAK**

Mercabilbao, S.A.k 2015ean egindako inbertsioa 4.565 eurokoa izan da, eta, funtsean, ekipamendu informatikoak berritzeari dagokio.

→ BALIABIDEAK SORTZEA ETA KAUDIMENA

2015eko kutxako fluxua 1.312 mila eurokoa izan da; hau da, aurreko ekitaldian baino %4,4 gutxiago. Baliabide-sorrera hori da, hain zuzen, Mercabilbaon egiten diren inbertsioen finantzaketa-iturria.

Aurrekoaren ondorioz, epe laburrerako kaudimen-indizea %11,27koa da, alegia, epe laburrera konprometituta daukagun euro

EMAITZAREN BILAKAERA (EUROS)

EGOERA-BALANTZEA 2015eko abenduaren 31ra (eurotan)

AKTIBOA	2015	2014
Aktibo ez Arrunta		
Ibilgetu materiala	8.108.137	8.108.137
Finantza ibilgetua	350	350
AKTIBO EZ ARRUNTA GUZTIRA	8.108.487	8.108.487
Aktibo Arrunta		
Zordunak	310.682	332.399
Ekitaldi epe Finantza inbertsioak	11.319.033	9.858.594
Ekitaldi amaierako doikuntzak	0	2.093
Diruzaintza eta bestelako aktibo likido baliakideak	205.917	504.869
AKTIBO ARRUNTA GUZTIRA	11.835.632	10.697.955
AKTIBO GUZTIRA	19.944.119	18.806.442
ONDARE ETA PASIBOA	2015	2014
ONDARE GARBI		
Baliabide propioak		
Kapital harpidetua	5.667.370	5.667.370
Erreserbak	12.039.696	11.629.750
Ekitaldiko Emainza	521.575	559.946
Baliabide-Propioen Guztira	18.228.641	17.857.066
ONDARE GARBI GUZTIRA	18.228.641	17.857.066
PASIBO EZ ARRUNTA		
Ekitaldi epe luzera	0	0
PASIBO EZ ARRUNTA GUZTIRA	0	0
PASIBO ARRUNTA		
Beste finantziario pasiboak	125.565	129.836
Taldeko Enpresekin zorrak	7.627	15.254
Hartzekodun kometzialak	478.343	520.310
Beste zor ez komertzial batzuk	75.155	63.034
Ekitaldi epe laburrera	242.438	220.942
PASIBO ARRUNTA GUZTIRA	929.128	949.376
ONDARE GUZTIRA + PASIBOA	19.157.769	18.806.442

GALERA-IRABAZIEN KONTUA 2015eko abenduaren 31ra (eurotan)

SARRERAK	2015	2014
Negozioaren zenbatekoa	3.942.595	3.942.001
Arrain merkatua	653.340	659.938
Barazki eta fruituen merkatua	1.704.839	1.722.090
Hozkailu orokorra	368.848	353.808
Balio anitzeko merkatua	395.760	381.412
Merkataritza zentrua	252.724	253.410
Beste jarduera batzuk	567.084	571.343
Osagarri sarrerak eta gainerako kudeaketa	1.569.837	1.626.496
Salbuespenezko sarrerak eta dirulaguntzak	46.331	11.005
SARRERAK GUZTIRA	5.558.763	5.579.502
GASTUAK	2015	2014
Pertsonal-gastuak	1.236.448	1.230.896
Soldatak	941.223	918.250
Gizarte zamak	295.225	312.646
Amortizazioetarako zuzkidurak	790.915	813.446
Trafiko horniduren aldaketak	0	0
Bestelako ustiapen gastuak	3.056.679	3.130.022
Kanpo zerbitzuak	2.932.977	2.996.572
Zergak	123.702	133.450
Salbuespenezko gastuak	23.996	5.369
GASTUAK GUZTIRA	5.108.038	5.179.733
Ustiapenaren emaitza	450.725	399.769
Finantza emaitza positibo garbiak	71.556	160.177
Zerga aurreko emaitza	522.281	559.946
Elkarteen gaineko zerga	(705)	0
EKITALDIKO EMAITZA	521.576	559.946



merca **B**ilbao

www.mercabilbao.eus